

# **1556/2018 Foru Agindua, 2018ko abenduaren 18koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izaera lortzeko hautapen prozesuetako harremanak bitarteko elektronikoen bidez egiteko betebeharra ezartzen duena.**

## **(2018ko abenduaren 26ko 247 zk.ko GAO)**

### **OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Ikusi ahal izan denez, bitarteko elektronikoak tresna eraginkorrak dira hautapen prozesuak kudeatzeko, hobetu egiten dutelako izangaiei emandako zerbitzua, ez baitute aurrez aurreko izapiderik eta joan-etorririk egin behar, eta arindu egiten dituztelako hautapen prozesuak, nabarmen murrizten direlako egin beharreko izapideen arteko denborak, horrela, Administrazio eraginkorragoa lortzearren.

Horregatik, egokitzat jotzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako hautapen prozesuetan interesdunek bitarteko elektronikoak bakarrik erabiltzea; hori gero eta ohikoagoa da, eta dagoeneko arrakastaz ezarri da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bertako langileen arteko harremanetan.

Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera 23/2010 Foru Dekretuan, irailaren 28koan, arautzen da.

Foru dekretu horren 3. artikulua jasotzen ditu bitarteko elektronikoak erabiltzean bete beharreko printzipio informatzaileak, eta xedatzen du bitarteko horien erabilera borondatezkoa izango dela, hau da, Administrazioak ezin izango dituela herritarrak behartu bitarteko elektronikoak erabiltzera berarekin harremanak izateko edo administrazio prozeduretan jarduteko.

Nolanahi ere, artikulua berak salbuespen bat ezartzen du, eta adierazten du Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek, dagokion foru diputatuaren foru agindu bidez, eurekiko harremanak bide elektronikoz izateko obligazioa ezartzea erabaki ahal izango dutela, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanbideagatik edo behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batengatik, beharrezko bitarteko teknologikoak eskura dituzten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak badira.

Hori bera aurreikusten du 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14. artikuluan, pertsona fisikoen eta administrazio publikoen arteko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilerari dagokionez.

Asmo horrekin, eta aipatutako foru dekretuak 3. artikuluan xedatutakoari jarraituz, foru agindu hau ematen da hautapen prozesuetako harremanak bitarteko elektronikoen bidez egiteko betebeharra ezartzeko A1, A2, B eta C1 sailkapen taldeetara eta azpitaldeetara aurkezteko. Izan ere, sailkapen talde horietara aurkezteko eskatzen den titulazioa kontuan hartuta, esan liteke gaitasun tekniko nahikoa dutela bitarteko elektronikoa erabiltzeko, teknologia horiek pixkanaka ezartzen joan diren neurrian orokortu egin baita horien erabilera, bai ikasketa garaian bai pertsonen gainerako esparruetan, eta horrek ziurtatzen du bitarteko elektronikoen eskura eta erabilgarri izatea.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez bakarrik izateko betebeharra ezarriko duen foru aginduak jaso behar dituen alderdiei dagokienez, Foru Dekretuaren 33. artikulua xedatzen du honako hauek zehaztu behar dituela gutxienez:

a) Zein komunikaziori aplikatzen zaien betebeharra, berariaz adierazita Administrazioaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea eta/edo erregistro elektronikoa erabiltzea obligazio horren barruan sartzen den edo ez.

b) Zein bide elektronikoa erabili behar den.

c) Sinadura elektronikoko zein sistema erabili daitekeen.

d) Zein pertsona, talde edo entitate dagoen behartuta.

Halaber, ezartzen du foru agindua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa argitaratu behar dela.

Adierazitako guztiagatik, foru diputatu honek

## **XEDATZEN DU**

### ***1. artikulua. Harremanak bitarteko elektronikoz izatera behartutako pertsonak.***

1. Harremanak bitarteko elektronikoz izateko betebeharra ezartzen zaie Gipuzkoako Foru Aldundiak A1, A2, B eta C1 taldeetara eta azpitaldeetara sartzeko deituko dituen hautapen prozesuetan parte hartzen dutenei.

Hautapen prozesuen deialdiak eta horiek arautuko dituzten oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa iragarki taulan argitaratuko dira (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), eta herritarrek eskuragarri izango dituzte egoitza elektronikoko «Enplegu Publikoa» atalean (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/enplegu-publicoa>).

2. Hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte ondorengo izapide hauek:

a) Parte hartzeko eskaera eta horri erantsi beharreko dokumentazioa aurkeztea, deialdiko oinarrietan aurreikusitakoaren arabera. Azterketa tasaren edo eskubideen ordainketa ere, halakorik egonez gero, bitarteko elektronikoen bidez egingo da.

b) Akatsak edo hutsegiteak zuzentzea.

c) Merezimenduak alegatu eta egiaztatzea.

d) Destinoak hautatzea.

e) Parte hartzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.

f) Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea, deialdiko oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

g) Hautapen prozesuarekin lotutako beste edozein izapide egitea edo dokumentazioa aurkeztea.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak edo, bestela, Epaimahai Kalifikatzaileak, jatorrizko agiriak eskatzeko aukera izango du, eta, zalantzazko kasuan, baita bestelako agiri osagarriak ere, merezimenduak eta eskakizunen betearazpena behar bezala balioesteko beharrezkotzat jotzen baditu.

4. 2. puntuan adierazitako izapideak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa sartu behar da, bai «Enplegu Publikoa» atalaren bidez bai erregistro elektronikoa erabiliz, eta hori guztia foru agindu honetako 3. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

5. 2. puntuan adierazitako agiriak aurkezteko eta izapideak egiteko, foru agindu honen xede diren hautapen prozesuetan parte hartu nahi dutenek erabili ahal izango dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako eta egoitza elektronikoa zerrendatutako identifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/egoitzarako-sarrera>).

## ***2. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izaera lortzeko hautapen prozesuetako izapideak bitarteko elektronikoen bidez egiteko baldintza orokorrak.***

1. 1.2 artikuluan zehaztutako izapideak bitarteko elektronikoen bidez egitean kontuan hartuko da deialdiko oinarrietan xedatutakoa. Bereziki, aurkezpen epea oinarri horietan ezarritakoa izango da.

2. Bitartekoaren erabilerari dagokionez, arau hauek izango dira aplikagarri: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena; 23/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena, eta foru agindu hau.

### **3. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izaera lortzeko hautapen prozesuetako izapideak bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedura.**

1. Parte hartzeko eskaera, eta horrekin batera erantsi beharreko dokumentazioa, bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, eta azterketa tasaren edo eskubideen ordainketa ere egiteko, interesdunek ondorengo prozedurari jarraitu beharko diote:

a) Sartu Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen «Enplegu Publikoa» atalean, eta hautatu parte hartu nahi den deialdia.

b) Sartu eskaera aurkezteko prestatuta dagoen inprimaki elektronikoa, eta bertan ematen diren jarraibideak bete.

c) Modu elektronikoa Identifikatzeko eta sinatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako sistemak erabiliko dira, 1.5 artikuluan aipatu direnak.<sup>1</sup>

2. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko nahiz destinoak hautatzeko, aurreko apartatuan adierazitako prozedurari jarraituko diote interesdunek; alabaina, parte hartzen ari diren deialdian jasotzen den inprimaki elektronikoa sartu beharko dute.

3. 1.2 artikuluan aipatutako gainerako izapideak egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoko erregistro elektronikoa erabiliko da.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiari egoz dakioken gorabehera tekniko batek galarazten badu propio prestatutako eta 1. eta 2. puntuetan aipatutako inprimaki elektronikoetan sartzeari, erregistro elektronikoaren bidez egin ahal izango dira izapide horiek.

5. Bidali beharreko dokumentazioa onartutako formatuan aurkeztu beharko da, eta egoitza elektronikoa une bakoitzean adieraziko dituen tamainako edo bestelako mugaketak bete beharko ditu.

6. Transmisio elektronikoa hutsune formalak antzematen badira, sistemak berak jakinaraziko dio interesdunari, errore mezuak bidaliz, beharrezkoak diren zuzenketak egin ditzan.

7. Izapidea onartzen bada, sistemak pantailan erakutsiko du eta/edo aurkeztu izanaren egiaztatze bat emango du, gordetzeko.

### **4. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.**

1. 1.2 artikuluan aipatzen diren pertsonak behartuta egongo dira bitarteko elektronikoen bidez jasotzera foru agindu honen xede diren hautapen prozesuetatik eratorritako komunikazioak eta jakinarazpenak, baldin eta argitaratzekoak ez badira.

---

<sup>1</sup> 3.1. artikulua c) letra zuzendu egin du, 96/2019 Foru Aginduak, otsailaren 4koak, 2018ko abenduaren 18ko 1556/2018 Foru Agindua zuzentzeari buruzkoak (2019ko otsailaren 14ko GAO).

2. Aurreko puntuan hori xedatzen bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo, bestela, Epaimahai Kalifikatzaileak, elektronikoak ez diren bitartekoen bidez egin ahal izango ditu jakinarazpenak, ondorengo kasuetan:

a) Interesduna Funtzio Publikoko Zerbitzuaren bulegoetan berez agertzen denean egindako jakinarazpena denean, interesdunak une horretan bertan komunikatzea edo jakinaraztea eskatzen duelako.

b) Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak edo jakinarazpenak ezin duenean bermatu jarduera administratiboaren eraginkortasuna.

3. Bitarteko elektronikoak eta ez-elektronikoak erabiltzen badira komunikazioa edo jakinarazpena egiteko, ulertuko da haren ondorio guztiak gauzatu direla ongi egindako lehen komunikazio edo jakinarazpenetik aurrera.<sup>2</sup>

4. Funtzio Publikoko Zerbitzuak egindako jakinarazpen elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoan ikusi ahal izango dira, eta egindakotzat joko dira interesduna bere sinadura elektronikoaren bidez jakinarazpenaren edukian sartzen denean, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43.2 artikulua bigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### ***Lehen xedapen gehigarria.***

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespen gisa, dagokion deialdiko oinarrietan aurreikus daiteke 1.2 artikuluan adierazitako izapideak paperean ere egin ahal izatea.

### ***Bigarren xedapen gehigarria.***

Halaber, langile arloko foru diputatu eskudunak erabaki ahal izango du paperean egitea izapide horiek, behar bezala arrazoitutako salbuespenezko arrazoiak badaude, edo behar bezala egiaztatutako gorabehera teknikoren batek galarazi badu sistemen funtzionamendu arrunta epe barruan.

### ***Hirugarren xedapen gehigarria.***

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespen gisa, dagokion deialdiko oinarrietan erabaki daiteke C2 sailkapen azpitaldeko eta lanbide multzoak biltzen dituen taldeko plazak eskuratzeko hautapen prozesuetako izapideak bitarteko elektronikoen bidez egiteko betebeharra.

---

<sup>2</sup> 4.3. artikulua zuzendu egin du, 96/2019 Foru Aginduak, otsailaren 4koak, 2018ko abenduaren 18ko 1556/2018 Foru Agindua zuzentzeari buruzkoak (2019ko otsailaren 14ko GAO).

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### ***Lehen xedapen iragankorra.***

Gipuzkoako Foru Aldundiak Administrazio Publikoen arteko erabateko elkarreragingarritasuna bermatu ez duen bitartean, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, III. tituluko IV. kapituluaren ezarritakoari jarraikiz, hau da datu-bitartekotzarako plataformetan edota horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioaren aurkezpena paperean egingo da, deialdiko oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

### ***Bigarren xedapen iragankorra.***

Aldi baterako, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lanpostuen Zerrenda 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duenak, 76. artikuluan ezarritako sailkapen taldeetara egokitzen ez den bitartean, hirugarren xedapen iragankorreko 2. puntuan jasotako baliokidetasunak mantenduko dira.

### ***Hirugarren xedapen iragankorra.***

Foru agindu honetan jasotzen diren aurreikuspenak ezarriko dira hura indarrean jartzen denetik aurrera deitutako Gipuzkoako Foru Aldundiko enplegatu publiko izaera lortzeko hautapen prozesuetan.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### ***Azken xedapenetan lehena.***

Langileen arloko foru diputatu eskudunak, foru agindu hau ezarri eta garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen ebazpenak eta jarraibideak eman ahal izango ditu.

### ***Azken xedapenetan bigarrena.***

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.